

## Patxi Noblia

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-11-24: 2.

Euskal Herria zazpi eskualdeko bezala deskriba daiteke, baina seikoa ere bai, eta azken hau da historia aldetik zehatzena, Nafarroaren zatiketaren indarkeria onartzen ez duena. Adina badu gure Herriak historiako aro guztietako testigantza itsatsia eramateko, eta normala da hainbeste urte, gizaldi eta milaurtekotan ere bizirik irten denak gorabehera handiak izatea. Askotan etortzen zait burura Manuel Irujo jaunari entzundakoa: "Euzkadi"az hizketan ari garenean, eta geure eskualdeen arteko desberdintasunaz kexatzen garenean, bai hizkuntzaz, bai historiaz, ez gara konturatzen, esate baterako, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko bereizteak bost mende dituela, eta gerra gaizto bat baino gehiago tartean. Hauxe bera etorri zitzaidan gogora joan den ostiralean lapurditarra den Patxi Nobliak Hondarribian eman zigun hitzaldi baliotsuaren testigantzan: Bidasoa den pausoko bi ur bazterretatik esaten dena ez da bestean, hitz beretsuekin esana ere, esanahi bera jasotzen; muga ezkutuaren lanbro zahar herdoildua ez du Pierre Lotiren hego xuriak garbitu, eta denbora beharko dugu, beste zerbaiten faltan, anai arteko harremanak zuzenean egiteko. Batez ere erdaraz hizketan jartzen garenean. Onenean, aipatutako honetan bezala, ez da gogo txarreko ezer dagoelako, baizik eta elkarrizketan ari nahi izanik ere, bakoitza berean mintzatzen ari delako; errazegi laburbildurik esanda, ibai honuzko "geurean" ari gara, denona den "gurean" aritu beharrean. Ez dakit zergatik, baina mintzaldi argigarriari irazkinak egiterakoan Manuel Irujo jaunaren egia borobila etorri zitzaidan gogora: Ahaztu egiten garela gure bitarteko pauso honek asko iraun duela, gehiegi, eta behar dugula buruko borondatea eta bihotzeko beroa batera jartzen saiatu.